



2008KO IRAILAREN 25EKO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zortziko irailaren hogeita bostean, iluntzeko zazpietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albi-su Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Xanet Barreras Jauregi, M^a Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Ángel Hernández Marzal, Ricardo Crespo Rubio, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Felix Urkola Iriarte eta Amagoia Naldaiz Mingo zinegotziak ez dira bertaratu.

Aktan adieraziko da Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2008ko ekainaren 26an eta uztailaren 24an egindako bilkuretako aktak, idatzita dagoen moduan onartzen direlarik.

Jendartetik hitza eskatu eta alkateak baimendu ondoren, Joseba Hernandezek esaten du beraien interbentzioak herritar soilenak balira bezala jasotzen jarraitzen dela eta beraiek ezker abertzalea gisa hitzegiten dutela.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Eskatutako argibideak eman ondoren, Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- 2007KO KONTU OROKORRA.-

2007 ekitaldiko Kontu Orokorra Kontuetarako Batzorde Berezian aztertu eta informatua izan zen 2008ko ekainaren 19an honek egindako bilkuran.

Ondoren jendaurreko erakustaldian jarri zen, iragarkia Udaletxeko iragarki oholean eta 2008ko uztailaren 10eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zelarik. Jendaurrean egon den 15 lanegunetan ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

...///...

Hau honela eta Erakunde Lokaletako Aurrekontuak arautzen dituen abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 63.4 artikulua dioena jarraiki, bozketara jartzen da 2007 ekitaldiko kontu orokorraren onarpena, ondorengo emaitzarekin: aldeko botuak 6 (EAJ, EB-B), aurka 1 (PP) eta 3 abstentzio (PSE-EE).

Ondorioz 2007ko Kontu Orokorra onartuta gelditzen da.

IV.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 3 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Alkateak esaten du kreditu aldaketa honetan gainera datorren urterako konpromiso kreditua onartu beharko dela, haurtzaindegia obra aurten eta datorren urteko aurrekontuetatik egingo delako, eta berak datorren urtean jarri beharrekoa seiehun mila (600.000 €) inguru izango dela uste duela.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du azkenaldietako joerarekin jarraituz, kreditu aldaketetan esaten dutenean baieztatzen dela, hau da, aurrekontuaren onarpenerakoan aurka bozkatu baldin bazuten ere, aldaketak inbertsioei eragiten diela ulertzen dutela eta hauek udalerrirako onak direla eta alde bozkatuko duela.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta aho batez honako hau

ERABAKI DA

Lehenik.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 3 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
VI	Inbertsio errealak	155.000,00 €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		155.000,00 €

...///...



...///...

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
II	Sarrera handiagoak Zeharkako zergak	155.000,00 €
GUZTIRA		155.000,00 €

Bigarren.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

Hirugarren.- Datorren urteko aurrekontuan 600.000,00 €ko konpromiso kreditua onartzea haurtzaindegia eraikuntzarako.

V.- 2009RAKO ORDENANTZA FISKALAK.-

Jarraian datorren urterako ordenantza fiskalen aldaketa planteatzen da.

Alkateak esaten du, Ogasun batzordean esan zen bezala, orokorrean Kontsumoko Prezioen Indizearen aldaketaren arabera aldaketa planteatzen dela, horretarako abuztuko urte arteko KPIren aldaketa erreferentzi gisa hartuz, hau da, %4,9ko igoera; esaten du baita ere, zabor bilketaren kasuan, Sasieta Mankomunitateak udalek jarri beharreko zenbatekoen igoera handiagoa onartuko duela espero denez, %8ko igoera planteatzen dela. Eta, bestalde, uraren kasuan, eta azken urteetan egindako ahalegin handiaren ondorioz, ur sarea asko hobetu eta ur jarioak gutxitzearekin batera kostuak erabat estaltzea lortu dela kontutan izanik, orain dauden tasak mantentzea planteatzen dela. Bestalde, zabor bilketa tasaren kasuan, aplikazio arau batzuk onartzea planteatzen da, tasa honen eguneroko kudeaketa administratiboan sortzen den kasuistikari erantzunez. Bai proposatzen den tarifa taula bai zabor bilketa tasaren kudeaketarako arau hauek bere espedienteak aurkitzen dira.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du aurten tasei dagokionean bere horretan uztea planteatzen dutela, gaur egun jasaten ari garen ekonomiaren egoerak ez duelako aholkatzen Lazkaoko bizilagunen ekonomia gehiago zamatzea.

Jendartetik hitza eskatu eta alkateak horretarako baimena eman ondoren Joseba Hernandez esaten du beraiek planteamenduaren aurka daudela eta beti esan dutela tasen igoerak KPIren parekoak eta ez handiagoak izatearen alde egon direla.

Guzti honen ondoren, gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak aldeko 6 botu (EAJ, EB-B), aurkako 3 botu (PSE-EE) eta abstentzio batez (PP), honako akordioak hartzen ditu:

...///...

...///...

- 1.- Akordio honen azalpenean aipatutako eta bere espedienteen aurkitzen diren ordenantza fiskalen aldaketa, hasierako izaeraz onartzea.
- 2.- Akordioa jendaurreko erakustaldian jartzea hogeita hamar lanegunetako denboraldian.
- 3.- Jendaurrean dagoen denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, akordioa behin betiko bihurtutzat joko da akordio espreso berri baten beharrik gabe.

Une honetan Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia bertaratu da.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Jendartetik hitza eskatu eta alkateak baimendu ondoren, Joseba Hernandezek esaten du ordenanatzak fiskalen puntuan etxeak egiten dituztenei, zabor bilketa lehenengo urtean ez kobratzearenarekin ez daudela ados eta beraientzat hasieratik kobratu behar litzaiekela.

Alkateak erantzuten dio esanez beste herri batzuetan lehenengo bi urteko denboraldian ez zaiela kobratzen eta hemen urte bete jarri dela. Gaineratzen du dena den jasota geratzen dela beraien iritzia.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hogeirenean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dularik.

